



Kubo ebakigarri bat nola muntatu


Inprima ezazu kuboaren txantiloia.




Hemendik aurrera lan egiteko soslaiak ikusiko duzu bertan, eta amaieran nola geratuko den ikusteko irudi txiki bat.




Presta itzazu guraizeak, laster beharko dituzu eta!




Has zaitez ebakitzen, marra beltzei jarraituz.




Amaieran, argazki honetakoa bezalako irudi bat geratu behar da.




Hemendik aurrera, soslaiaren zatiak tolestu baino ez duzu egin behar. Erabil ezazu erregela, errazago egingo duzu eta!




Toles itzazu banan-banan soslaiko erlaitz guztiak.



Orain, tolestu itzazu banan-banan irudiaren beste zatiak, marra beltzei jarraituz. Oraindik ez duzu muntatu behar kuboak: marrak markatzen ari gara besterik gabe, zatiak gero errazago tolesteko.




Ikusten? Irudia lehen baino malguagoa da orain. Kuboa muntatzear gaude.




Kola-barra bilatzeko unea da. Has gaitzen azken muntaketarekin!

Jar ezazu kola pixka bat erlaitzen atzealdean (marra beltzik ez dagoen aldean).



Has zaitez bakarrik dagoen karratuarekin. Jar ezazu kola bi erlaitz horien atzean, eta tolestu ezazu karratua gorantz. Gero, tolestu itzazu alboetan daude bi karratuak. Ongi egin baduzu, irudian bezalaxe itsatsita geratuko dira.



Segi ezazu erlaitzen atzealdean kola jartzen, eta tolestu itzazu irudiaren zati guztiak. Une batean, kuboak muntatzen amaituko duzu!